BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5538

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresari ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Zumaiako udalerrian (Gipuzkoa) altzairuzko piezak galbaniza ditzan.

AURREKARIAK

2006ko maiatzaren 26an, José Maria Olaizola Uria Jaunak, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresaren izenean eta berau ordezkatuz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Zumaia (Gipuzkoa) udalerrian altzairuzko piezak galbanizatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, proiektuak Zumaiako hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko 2006ko martxoaren 29ko udal-txostena bidali zuen, ondorengo agiri teknikoekin batera:

– Oinarrizko proiektua (2006ko ekaina).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko ekaina).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak, besteak beste, irekitzeko baimena zuen, 2006ko urtarrilaren 23koa. Altzairuzko piezak beroan galbanizatzeko eman zitzaion baimena. Halaber, enpresa sustatzaileak ibilgura isurketak egiteko 2006ko urtarrilaren 9ko baimena, hondakin arriskutsuak ekoizteko 2003ko maiatzaren 23ko baimena eta industria-hondakin geldoak ekoizteko 2002ko urtarrilaren 15eko baimena, eta ondorengo handitze eta berritzeak zituen.

2006ko ekainaren 2an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Zumaiako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari egin zitzaien kontsulta.

2006ko azaroaren 3an eta 2007ko ekainaren 5ean eta uztailaren 6an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak bidaltzeko eskatu zion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2007ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Zumaiako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 5ean eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Galvanizados Olaizola, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpen-Proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadurari aurrea hartu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Uztailaren 1eko Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Galvanizados Olaizola, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; ibilgura isurtzeko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkionak. Era berean, beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko dituzte, espedientean parte hartzen dutela agerian utziz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Zumaiako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplikatzekoa den alorreko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2001eko abenduko burdinazko metalen inguruko BREF agiriaren edukia «Reference Document on Best Available Techniques on Ferrous Metal Processing Industry», 2005eko ekaineko biltegiratzeen isurtzeei buruzko BREF agiriaren edukia «Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage» eta 2001eko abenduko hozteari buruzko BREF agiriaren edukia «Reference Document on the Application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems» izan dira kontuan.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, Ebazpen-Proposamena sinatu eta Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen 2005eko urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zumaiako (Gipuzkoa) udalerriko Txikierdi Auzoan helbide soziala eta IFK: A-20060075 zenbakia duen Galvanizados Olaizola, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Zumaiako udalerrian altzairuzko piezak beroan galbanizatzeko instalaziorako, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko «Metal ferrosoak eraldatzeko instalazioak». Metal urtuzko babesgeruzak aplikatzea, orduko bi tona baino altzairu gordin gehiago babesteko ahalmena dutenak 2.3.c) kategorian sartuta dago. Galvanizados Olaizola, S.A. enpresaren jarduera metalezko elementuen (altzairua eta burdinazko aleazioak) gainean zinkezko azal-tratamendua aplikatzean datza, korrosioaz babesteko (beroan galbanizatzea). Instalazioak bi produkzio-planta ditu (hodiak eta egiturak) eta biek antzeko produkzio-prozesuak dituzte. Prozesuak ondorengo etapak ditu: koipegabetzea, desugerketa, garbiketa, mordentatzea, lehortzea, galbanizazioa, hoztea eta akaberako kontrola.

Instalazioak urtean 30.000 tona altzairu ekoizteko gaitasuna du; horietatik, planta nagusiak 25.000 tona ekoizten ditu urtean, eta hodien plantak, berriz, 5.000 tona urtean.

Produkzio-prozesua piezak koipegabetzearekin hasten da, metala eragile tentsioaktiboak dituen bainu alkalinoan murgilduz. Jarraian, piezek desugerketa-tratamendua jasaten dute eta bertan, metalezko piezen gainazalean dauden burdin oxidoak ezabatzen dira, azido klorhidriko

diluituzko bainuan murgilduz. Tentsioaktiboak eta desugerketa-inhibitzaileak gehitzen zaizkio, azido klorhidrikoak altzairua gehiegi kaltetu dezan galarazteko.

Jarraian, materiala iturriko urarekin garbitzen da, hurrengo etapetara azidoa eta burdinazko gatzak arrasta ditzan saihesteko. Garbiketaren ondoren, ur hori desugerketa-bainuak prestatzeko erabiltzen da.

Behin piezak garbituta, mordentatzea egiten da eta horretarako, zink klorurozko gatz eta amoniozko bainuan murgiltzen dira elkarrekin, metalezko gainazala prestatu ahal izateko, ezpurutasunak ezabatuz eta gainazala garbi mantenduz.

Jarraian, aire beroaren bidez piezak labe baten lehortzen dira, zink-jaurtitzeak saihestu, labearen errendimendu termikoa hobetu eta ekoitzitako zerrauts-kantitatea murrizteko.

Lehorketaren ostean piezak galbanizatzen dira, normalean 450 ºC-tan dagoen zink urtuzko bainu batean murgilduz. Tratamendu honetan itsaspen handia duten burdinazko eta zinkezko (Fe-Zn) aleazio-geruzak eta zink hutsezko kanpoko geruza osatzen dira.

Azkenik, produktuak bainutik abiadura geldoan ateratzen dira estaldura leuna eta uniformea lortzeko, eta hoztu egiten dira, uraren edota airearen bidez, giro-tenperatura lortu arte.

Azkenik, piezak bastidoreetatik jaisten dira, ikuskatu eta akaberako hainbat entsegu egiten dira akaberako produktua zehaztutako eskakizunekin bat datorren ziurtatzeko. Ondoren, biltegiratu, paketatu eta gorde egiten dira bezeroari eman arte.

Azaldutako prozesuaz gain, enpresak ondorengo instalazio laguntzaileak ditu: lehorketa-labea, bi galbanizatu-labe, batak 880.000 kcal/h-ko potentzia du (hodien planta) eta besteak 2.100.000 kcal/h (planta nagusia), aire bidezko hozkailua eta mordentatze-soluzioaren birsorkuntza jarraituko instalazioa. Instalazio hau amoniakoa eta ur oxigenatua gehitzen zaion erreaktore batez eta hidroxido ferrikoa botatzen den dekantagailu batez osatzen da. Gainean gelditzen den soluzio garbia finkagarri-bainura itzultzen da; hidroxido ferrikoaren lohia, berriz, prentsa-iragazki batera ponpatzen da gehienezko soluzioa berreskuratzeko eta sortutako lohien bolumena minimizatzeko.

Instalazioak kontsumitzen dituen energia baliabideak hauek dira: energia elektrikoa (1.232.053 KWh/urtea) instalazioa hornitzeko (garabiak, argiztapena) eta gas naturala (11.600.000 KWh/urtea) galbanizatu-labeen eta lehorketa-labearen kontsumorako.

Instalazioak Narrondo ibaitik bildutako ura kontsumitzen du, eta koipegabetze, desugerketa, mordentatze bainuetarako eta piezak eta konpresoreak hozteko erabiltzen da; bestalde, zundaketetatik datorren edateko ura osasun-erabilerarako eta mantentze-lanen eragiketa zehatzetarako erabiltzen da.

Instalazioan sortutako efluenteak udal kolektorera isurtzen diren ur sanitarioei eta Narrondo ibaira isurtzen diren konpresoreen hozte-urei dagozkie.

Instalazioak atmosferara isurtzen duten 5 foku ditu: galbanizatu-labeen erregailuei dagozkienak (2), galbanizatu-upelen isurtze kanalizatuak (2) eta hodiak puztearen isurtze kanalizatuak. Horietatik, soilik galbanizatu-upelen isurtze kanalizatuek eta hodiak puztearen isurtze kanalizatuek dituzte isurtzeen arazketa-sistemak. Hodiak puztearen isurtzeen kasuan, arazketa-sistema zikloi bat da. Bestalde, galbanizatu-upelen isurtzeen kasuan, planta nagusirako mahuka-iragazki bat da eta hodien plantarako, berriz, Venturi ikuzgailu bat.

Instalazioan sortutako hondakin arriskutsuak galbanizatu-prozesutik, hondakin-uren tratamendutik eta zerbitzu orokorretatik eratorritako hondakinak dira.

Produkzio-prozesuak Burdinazko Metalen Prozesatuaren Europako BREF agirian (2001eko abenduko «Reference Document on Best Available Techniques in the Ferrous Metal Processing Industry») jasotako teknika onenen erabilerak hartzen ditu bere baitan. Zehazki, instalazioak aipatu agiriak TOE gisa hartzen dituen ondorengo jarduerak ditu, besteak beste: koipegabetze-etapa dute eta horien parametroak laborategiko analisien bidez eta olioak eta koipeak eskuz kenduta kontrolatzen dira; desugerketa eta metalak kentzeko bainu bereiziak dituzte; metalak kentzeko bainuaren birsorkuntza kanpoaldetik egiten da baimendutako kudeatzailearen bidez; desugerketa-bainuaren tenperatura eta kontzentrazioa kontrolatzen dute, isurtze barreiatuak saihesteko, eta inhibitzaileak erabiltzen dira; desugerketa-bainuaren ostean garbiketa estankoa egiten dute; garbiketa-ura desugerketa-bainua prestatzeko berrerabiltzen dute; mordentatze-bainua etengabe birsortzen dute; erauzketa-sistema dute eta baita ondoren mahuka-iragazkien bidezko galbanizatu-upelaren isurtzeen arazketa ere; errekuntza-gasak koipegabetze- eta mordentatze-bainuak berotzeko eta lehortzeko aprobetxatzen dituzte; galbanizatutako piezak zirkuitu itxian hozten dituzte eta atxikipen-kubetak dituzte likido korrosiboen biltegiratzeetan eta mordentatze-bainuak birsortzeko gunean.

Bigarrena.– Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak Zumaiako udalerrian sustatutako altzairuzko piezak beroan galbanizatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Kosten uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 88.4 artikuluak xedatutakoa betez eta aipatu legearen 85. artikuluan eta onartuko den garapen-araudian zehaztutako irizpideak jarraituz, behin Ebazpen honetako C.1.2.5 atalak aipatzen duen isurketa-kanona zehaztuta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak fidantza bat eskatuko dio Galvanizados Olaizola, S.A. enpresari, ezarritako isurketa-baldintzak bete daitezen.

B) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du.

C) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean den araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

C.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

C.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

C.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Altzairuzko piezak beroan galbanizatzeko instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta

konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

C.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Altzairuzko piezak beroan galbanizatzeko instalazioak ondorengo fokuak ditu, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa.		UTM koordenatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	20000299-01	Errekuntza-gasetatik datorren isurtze kanalizatua (planta nagusia)	20	0,75	C	3.1.1	560009	4792885
2	20000299-02	Errekuntza-gasetatik datorren isurtze kanalizatua (hodien planta)	15	0,63	C	3.1.1	560182	4792816
3	20000299-03	Galbanizatu-bainutik datorren isurtze kanalizatua (planta nagusia)	17	1,27	B	2.5.2	560005	4792885
4	20000299-04	Galbanizatu-bainutik datorren isurtze kanalizatua (hodien planta)	8	0,6	B	2.5.2	560154	4792802
5	200002990-05	Hodiak puztetik datorren isurtze kanalizatua	15	0,6	B	2.5.2	560175	4792808

Gainera, HCl-zko lurrunez osatutako isurtze barreiatuak sortzen dira desugerketa-bainuetan. Isurtze horiek izaera etenkorra dute, desugerketa-bainuaren piezak kargatzerakoan sortzen baitira, 5 edo 6 aldiz orduro. Halaber, isurtze barreiatuak sortzen dira piezen koipegabetze-bainuetan, garbiketan, mordentatzean eta lehortzean.

C.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Atmosferara isurtzen diren gai poluitzaileek ondorengo balioak ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	CO	500 mg/Nm^3
	NO_x	300 mg/Nm^3
2	CO	500 mg/Nm^3
	NO_x	300 mg/Nm^3
3	Partikula solidoak	10 mg/Nm^3
	HCl	20 mg/Nm^3
4	Partikula solidoak	10 mg/Nm^3
	HCl	20 mg/Nm^3
5	Partikula solidoak	10 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

C.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2. atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak 1976ko urriaren 18an emandako Agindua (Industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruzkoa) bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Desugerketa-bainuaren ondorioz sortutako isurtze barreiatuak minimizatzeko helburuarekin, tenperatura eta bainuaren kontzentrazioa kontrolatzen dira, eta lurrunaren kontrako eragileak gehitzen zaizkio.

C.1.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

C.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industriako hondakin-urak	Konpresoreen hozte-urak	Narrondo ibaia	X: 559.946 Y: 4.792.820

C.1.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: industria-urak.

Orduko puntako emaria	2,73 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	30 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	6.600 m^3/urte

C.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Itsasorako isurketen ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

a) 1. isurketa: industriako hondakin-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
Tenperatura puntuala (º C)	< 3 ºC gehitzea isurketa-puntutik 50 m-ra
Solido esekiak (mg/l)	35
OEK (mg O_2/l)	80
Olio eta koipe flotatzaileak	Ez dago
Olioak eta koipeak (mg/l)	20

Ur sanitarioen isurketak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorera isurketak egiteko Araudiak jasotzen dituen mugak eta baldintzak bete behar ditu, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa eta salbuespenekin.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

C.1.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-urak arazteko instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileak espedientean agertzen den enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirietara egokituko dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean:

– Bainu agortuak kentzea, biltegiratzea eta kudeatzea.

– Segurtasun-kubetak bi pabiloien galbanizatu-lerroen upeletan.

– Flux-bainutik datozen urak birsortzeko arazgailua, ondorengo prozesuak dituena:

1) Amoniakoa eta ur oxigenatuaren gehitzea.

2) Hidroxido ferrikoaren dekantazioa.

3) Prentsa-iragazki bidezko deshidratazioa.

4) Ihes txikientzako atxikipen-kubeta, ondoren baimendutako kudeatzaileak eraman dezan.

– Enpresaren saneamendu-sare guztien birmoldaketa. Guztira, ibaira isurtzeko hamar puntu geratuko dira; horietako bederatzi euri-urenak eta beste bat baimen honen industria-isurketari dagokiona.

– Azidoen zamalanetako gunean dagoen isuriak atxikitzeko andelari lotutako segurtasun-kubeta.

– Olioaren berariazko bereizlea konpresoreen galdara handien kondentsatu-purgaketetarako.

– Itxitako putzuaren inguruko lurpeko uren monitorizazioa eta ingurumen-kontrola.

– Langileen osasun-erabilerako uren eta Zumaiako saneamendu orokorraren arteko konexioa.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean

ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

C.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Kosten 22/1988 Legearen 85. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak altzairuzko piezak beroan galbanizatzeko jarduerari lotuta burutzen duen isurketa baimendua kanon batez zergapetua egongo da, eta Uraren Euskal Agentziak likidatuko du, artikulu horretan eta hori garatzeko onartzen den araudian ezarritako irizpideak jarraituz kanonaren zenbatekoa zehaztu ondoren.

C.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsorkuntza eta berrerabilpena lehenetsiko dira, beste baliotze moduen aurrean, baliotze materiala edo energetikoa izanda ere.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Zumaiako Udalean.

C.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

1. Prozesua: «Galbanizazioa».

1. hondakina: «Koipegabetze-lohiak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/1/1.

Hondakinaren kodea: Q7//D9//P27//C24/51//H5//A243//B3301.
HEZ: 11 01 13.
Urtean sortutako kantitatea: 13 t.

Koipegabetze-soluzioa birjartzerakoan sortzen dira; olioak eta oxido metalikoak dituzten lohiak dira.

Sortzen den tokian edo tokietan aipatu hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da. Bidoia beteta dagoenean, hondakinen biltegira eramaten da, baimendutako kudeatzaile bati bidali arte.

2. hondakina: «Azido klorhidriko agortua».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/1/2.
Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23/H8//A243//B3301.
HEZ: 11 01 05.
Urtean sortutako kantitatea: 847 t.

Desugerketa-soluzioa birjartzerakoan sortzen dira; kloruro ferrosoa eta oxido metalikoak dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako andelean jasotzen da, ontziratu gabe jaso eta baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

3. hondakina: «Zink-hautsa».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/1/3.
Hondakinaren kodea: Q9//R4//S25//C7/18//H3a/4//A243//B3301.
HEZ: 11 05 03.
Urtean sortutako kantitatea: 54 t.

Hodi galbanizatuen barrualdean putz egitean sortzen dira; zink eta berunezko hauts metalikoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den lekuan edo lekuetan; bidoia bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

4. hondakina: «Zink kloruroaren hondakin-soluzioa azido base klorhidrikoan».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/1/4.
Hondakinaren kodea: Q8//R4//L27//C7/23//H4/8//A243//B3301.
HKE: 110105.
Urtean sortutako kantitatea: 125 tona.

Metala kentzeko soluzioa birjartzerakoan sortzen da; zink kloruroaren soluzio azidoa da.

Hondakin horrentzat identifikatutako andelean jasotzen da; baimendutako kudeatzaileak zuzenean jasotzen du andeletik.

2. prozesua: «Gas-efluenteak araztea».

5. hondakina: «Mahuka-iragazki erabiliak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/2/1.
Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C7/23//H5//A243//B0011.
HKE: 150202.
Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Gasen arazketa-sistemaren mahuka-iragazkiak aldatzerakoan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag-ean jasotzen da; behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

3. Prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

6. hondakina: «Arazketa-opil lohiak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/3/1.
Hondakinaren kodea: Q9//D9//S27//C24//H5/14//A243//B0006.
HEZ: 11 01 09.
Urtean sortutako kantitatea: 10 t.

Mordentatzetik datozen uren arazketa-instalazioan sortzen dira; oxido metalikoak dituzten lohi alkalinoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da. Bidoia beteta dagoenean, hondakinen biltegira eramaten da, baimendutako kudeatzaileari bidali arte.

4. Prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

7. hondakina: «Motorren olioa».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/4/1.
Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A243//B0019.
HEZ: 130205.
Urtean sortutako kantitatea: 500 kg.

Makina eta instalazioetan olioa birjartzeko eragiketetan sortzen dira; olio mekaniko erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den tokian edo tokietan. Bidoia beteta dagoenean, hondakinen biltegira eramaten da, baimendutako kudeatzaileari bidali arte.

8. hondakina: «Olio dielektrikoa».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/4/2.
Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A243//B0019.
HEZ: 130207.
Urtean sortutako kantitatea: 600 kg 7 urtean behin.

Makina eta instalazioetan olioa birjartzeko eragiketetan sortzen dira; halogenatu gabeko olio dielektrikoak dira.

Zuzenean erabilera-puntutik erretiratzen da, baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

9. hondakina: «Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten lanparak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/4/3.
Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A243//B0019.
HEZ: 20 01 21.
Urtean sortutako kantitatea: 100 kg.

Lanpara fluoreszenteak birjartzeko eragiketetan sortzen dira eta hondakinarentzat identifikatutako kutxan gordetzen dira, hondakinarentzat den berariazko gunean, Garbigunera bidali arte; Garbiguneren onarpen-agiria gehitu behar da.

10. hondakina: «Ekipo ofimatikoak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/4/4.
Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6/18//H6/14//A243//B0019.
HEZ: 16 02 13.
Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Ekipo elektrikoak eta elektronikoak birjartzeko eragiketetan sortzen dira; baztertutako ekipo ofimatikoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, Garbigunera bidali arte; Garbiguneren onarpen-agiria gehitu behar da.

11. hondakina: «Kutsatutako trapuak eta xurgatzaileak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/4/5.
Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C51//H5//A243//B0019.
HEZ: 15 02 02.
Urtean sortutako kantitatea: 100 kg.

Xurgatzaileak eta ehunak biltzerakoan sortzen dira; olioz, disolbatzailez eta bestelako kutsagarriz bustitako trapuak, eskularruak eta xurgatzaileak dira.

Sortzen den tokietan aipatu hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da. Bidoia beteta dagoenean, hondakinen biltegira eramaten da, baimendutako kudeatzaile bati bidali arte.

12. hondakina: «Aerosolak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/4/6.
Hondakinaren kodea: Q6//R13//S36//C43/11//H6//A243//B0019.
HEZ: 16 05 04.
Urtean sortutako kantitatea: 100 kg.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; lubrifikatzaileak eta pinturak eduki dituzten aerosolak dira.

Sortzen den tokietan aipatu hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da. Bidoia beteta dagoenean, hondakinen biltegira eramaten da, baimendutako kudeatzaile bati bidali arte.

13. hondakina: «Kutsatutako metalezko ontziak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/4/7.
Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A243//B0019.
HKE: 150110.
Urtean ekoitzitako kantitatea: 100 kilogramo.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

14. hondakina: «Kutsatutako plastikozko ontziak».
Identifikazioa: A20060075/2000007499/4/8.
Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A243//B0019.
HKE: 150110.
Urtean ekoitzitako kantitatea: noizean behin.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak eduki dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b)«Olio dielektrikoa» hondakina zuzenean jaso behar da sortzen den instalazioko andeletatik, aurretik ontziratu eta biltegiratu gabe, eta baimendutako kudeatzaileari eman behar zaio.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen du dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa ere izango da.

e) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz hustu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak.

k) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak PKB eduki dezaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak, eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

n) Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

o) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

q) Aipatutako d) eta e) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta l) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 108/1991 Errege DekretuaK 3. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

C.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Zerrautsa	150203	Zerbitzu orokorrak	28 t/urte
Zurak	200138	Zerbitzu orokorrak	4 t/urte
Plastikoa	200139	Zerbitzu orokorrak	22 t/urte
Besteak	200199	Zerbitzu orokorrak	8 t/urte

a) C.1.3. atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, «besteak» izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, horiek aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aipatutako d) eta e) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta f) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

C.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak eta otsailaren 4ko 1/2005 Legeak ezarritako betebeharrak betez aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostenaren arabera, eta bertan jasotako gomendioei jarraituz, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak lohiak biltegiratzeko guneko kubetaren aurreko gunea itxi beharko du, egun zabalik dagoena eta euri-uren kolektoreak mugatzen duena. Halaber, gune horren inguruko zolatzea zabaldu beharko du.

Era berean, bere baitan dituen prebentzio eta defentsa neurriak mantendu beharko ditu. Ondorengoak dira:

– Prentsa-iragazkien opilen hondakinak eta dekantagailuaren lohiak atxikipen-kubetaren barrualdean, kanpoaldeko biltegiratzeko teilapean biltegiratzea.

– Azido klorhidrikoa eta kloruro ferrosoa 90 m^3-ko atxikipen-kubeta baten barruan, poliester indartuko andeletan biltegiratzea.

– 30 m^3-ko biltzeko hustubiderantz atxikipen-kubeta eta isurialde-kanala dituen likido korrosiboen zamalanetarako gune egokia. Biltzeko kanala nola hustubidea lauza batez estalita daude.

– Mordentatze-bainuaren arazgailua, isuriak atxikitzeko estalpean dauden bi kubetekin.

– Piezak tratatzeko bainuen gunea, poliesterrezko erretxinez estalitako kubetarekin eta upel nagusiak baino gaitasun handiagoa duena.

Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak jarduera garatzen duen lur-zatian lur-mugimenduak sustatzen baditu, enpresak hondeatu behar dituen materialen karakterizazioa egin beharko du, jardun kutsatzaileen ondorioz erasan diren egiaztatzearren eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearren.

Karakterizazio horretan lortutako emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, baloratzeko. Material horiek kudeatu aurretik egin behar da hori. Ingurumen organoak, ebazpen arrazoitu baten bidez, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura hastea eskatu ahal izango du kutsadura-zantzurik antzemanez gero, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 17.6 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

C.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

D) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

D.1.– Atmosferara isurtzen diren kutsatzaileak kontrolatzea.

a) Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak isurtzeen kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20000299-01	Errekuntza-gasetatik datorren isurtze kanalizatua (planta nagusia)	CO NO_x	5 urtean behin (BKE)
2	20000299-02	Errekuntza-gasetatik datorren isurtze kanalizatua (hodien planta)	CO NO_x	5 urtean behin (BKE)
3	20000299-03	Galbanizatu-bainutik datorren isurtze kanalizatua (planta nagusia)	Zinka HCl Partikulak guztira	Urtero (BKE)
4	20000299-04	Galbanizatu-bainutik datorren isurtze kanalizatua (hodien planta)	Zinka HCl Partikulak guztira	Urtero (BKE)
5	20000299-05	Hodiak puztetik datorren isurtze kanalizatua	Zinka HCl Partikulak guztira	Urtero (BKE)

b) Goiko atalean adierazitako neurketa guztiak Baimendutako Kontrol Erakunde (BKE) batek egin behar ditu (gutxienez, ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan barrena neurtutakoak) eta aldizkako neurketa horiei dagozkien txostena, Ingurumen Sailburuordetzaren «BKEren gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu behar zaio. Edonola ere, botatako gai poluitzaileen kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzak ezarritako eskakizun tekniko guztiak bete beharko dituzte.

c) Baimendutako kontrol erakundeak adierazitako parametro guztiak neurtu eta horien gainean egiten dituzten txostenak bidali beharko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

D.1.1.– Lortutako emaitzak erregistratzea.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

D.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztutako agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrolerako kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Industriako hondakin-urak	X:559466 Y: 4795382	pH-a, tenperatura, solido esekiak, OEK, olio eta koipe flotatzaileak, eta olioak eta koipeak	Sei hilean behin	Kanpokoa (BKE)

b) Itsasora egiten diren isurketen kanpoko kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goiko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara eta Uraren Euskal Agentziara, Gipuzkoako ordezkaritzara, bidaliko dira laginak hartzen diren egunetik hasi eta hilabeteko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, C.1.2.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen baditu.

D.3.– Eraginaren kontrola plantaren inguruko ingurune urtarrean.

Sei hilean behin Narrondo ibaia bi laginketa-estaziotan kontrolatuko da. Estazioak isurketaren balizko eragina adierazteko nahikoa esanguratsuak izan behar dira eta datozen kanpainetan aldaezinak izango dira.

Urtean behin agorraldi garaian, eta uren kasuan bezala enpresaren uretan gora eta behera kokatutako puntuetan, jalkinean dauden metalak (Zn, Ni, Cr eta Fe) zehaztuko dira.

Organismoen kontrolari dagokionez, komunitate bentonikoen osaketa, ugaritasuna eta dibertsitatea zehaztuko dira, adierazle bentoniko eta komunitate bentonikoen aldaketa adierazle gisa ezarriz.

Ur hartzaileen kontrola betearazteari ekin aurretik, jalkinak eta organismoak, aplikatu beharreko metodologia nola aurrera eramango duen talde teknikoa, Gipuzkoako Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren Lurralde Bulegoak onartu beharko ditu.

Aipatutako kontrolak egin ondoren, eskatutako datu guztiak, laginketen deskripzioa, analisi-metodoak, etab. eta emaitzen balorazioa jasoko dituen txostena egingo da.

Sustatzaileak kontrol-kanpainak egiteko proposamen zehatza aurkeztu beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, onets dezan. Proposamena onetsi ondoren, ebazpen honen D.8 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

D.4.– Jardueraren adierazleak.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Hondakin arriskutsuen baliotze-tasa / ekoitzitako kantitatea	%
Hondakin arriskutsuen gutxitze-tasa / ekoitzitako kantitatea	%
Partikulen kontzentrazioa galbanizatu-labeetako isurtzeetan	Ppm
Gainazaleko uren kalitatea (narrondo ibaia)	ºC Ppm Ud ph
Potentzialki kutsagarriak diren eta iii edo arrisku-maila txikiagoa duten iturri-kopurua / guztizko iturri-kopurua	Ud
Zaraten ondorioz sortutako kalteengatik jarritako salaketa-kopurua	Ud

D.5.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori Ebazpen honetako D.7 atalean aipatzen den Ingurumena Zaintzeko Programako testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

D.6.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta inguruneareN kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren

gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Gipuzkoako Ordezkaritza).

D.7.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

E) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

E.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

E.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (2851 epigrafea «Metalen tratamendua eta estaldura»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

E.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Oinarrizko Proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, fabrikako kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak. Era berean, kutsadura atmosferikoaren prebentzio- eta zuzenketa-sistemak (arazketa, minimizazioa, eta abar) egoera onean daudela bermatuko duten neurriak hartuko dira.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, zorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, azido klorhidrikoa, kloruro ferrikoa, koipegabetzailea, amoniako disoluzioa, ur oxigenatua eta desugerketa-inhibitzaileak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Arazketa-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

j) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

k) Arazteko instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, bertan tratatzeko.

l) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

m) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

n) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

o) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isurketak, hondakin arriskutsuak desagertu, galdu edo ihes egitea), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gorabehera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

p) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS DEIAK eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

– Gertakari mota.
– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
– Iraupena.
– Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.
– Mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.
– Eragindako kalteen balioespena.
– Hartutako neurri zuzentzaileak.
– Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
– Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

q) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean jartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

G) Urtean behin Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei, eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainontzeko informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE

Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

H) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritza eskudunari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek (EE 1907/2006 Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu dira horiek) giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

I) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio Ebazpen honetako bigarren ataleko honako puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: C.1.3.1.d) eta C.1.3.2.d) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); C.1.3.1.m) eta C.1.3.2.f (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kontrolerako erregistro-eredua); C.1.4 (Lurzorua babesteko neurriak); dagokionean, D.1 (Atmosferara egindako isurtzeen kontrola); D.1.1 (Atmosferara egindako isurtzeen erregistro-eredua); D.5 (Zarata neurtzeko proposamena); D.7 (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); E.1 (Programatutako etenaldietan isurtze eta hondakinen sorkuntzaren balioespena); E.3.a eta b (Mantentze-lanen eskuliburua, Ikuskaritza eta kontrolerako programa); E.3.g) (Biltegiratzeko ziurtagirien egiaztapena) eta E.3.h) (Larrialdi-kasuetarako eskuragarri dauden materialen zerrenda); E.3.q) (Suteen aurkako babesari buruzko araudia).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edozein modutan ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Galvanizados Olaizola, S.A. enpresak ebazpen honen xede den altzairuzko piezak beroan galbanizatzeko instalazioan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, horrek onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Galvanizados Olaizola, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Galvanizados Olaizola, S.A. enpresari, Zumaiako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.